SINATZAILEA
La Presidenta de la Comisión Gestora de Areso / Aresoko Kudeaketa Batzordeko Lehendakaria
María Beatriz Muro Martínez
2026/04/15

SINATZAILEA
La Secretaria de Areso / Aresoko Idazkaria
MAIDER CASTILLA ELARRE
2026/04/15

ARESOko UDALA

ARESOko UDALA | Eliz bidea z/g | 31876 ARESO (Nafarroa) | T. 948 510 327 | CIF/IFK P-31 031 000-H

25/2026 KUDEAKETA BATZORDEKO LEHENDAKARI EBAZPENA

Areson, 2026ko apirilaren 15ean

GAIA: ZENBATEKO TXIKIKO KONTRATAZIOA: EXEKUZIO PROIEKTUAREN IDAZKETA.

Mª BEATRIZ MURO MARTINEZ, Udalerri honetako Kudeaketa Batzordeko Lehendakariak, Toki- araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.artikuluak onartzen dion gaitasunean oinarritua., honakoa

AURREKARIAK:

Aresoko azken merkataritza-establezimendua itxita, zerbitzurik gabe geratu da herria eta udalerri mugakideetara garraio-zerbitzu erregularrik ez dagoenez, biztanleriaren zati batek ez du joan-etorririk egiten eguneroko erosketak egiteko. Gainera, honekin batera Aresoko topagune eta sozializazio nagusia desagertu da.

Kezka eta erronka honek herritarren eta Udalaren arteko prozesu bateratu bati hasiera eman dio, egoera honi erantzuna eta konponbidea emateko. Prozesu horretan, talde eragile bat sortu da Aresoko errealitatera egokitutako konponbide egokia aurkitzeko.

Aresoko biztanleek beren behar komunitario eta pertsonaletara egokitutako azpiegiturak behar dituzte, eta udalaren betebeharra da, ahal den neurrian, azpiegitura horiek ematea, herriaren kohesio sozialari eusteko eta biztanleria finkatzeko. Hau da, ideia eta asmo horiek espazio fisiko batean gauzatu behar dira, eta herrian ekimen pribaturik ez dagoela ikusita, espazio horrek udalaren titulartasunekoa ere izan behar du.

Aukerak aztertu ondoren, Aresoko taberna-denda proiekturako kokapen egokiena udaletxeko beheko solairua dela erabaki da. Hainbat fasetan garatutako proiektu baten bidez, beheko solairua libratuko da jarduketa hau gauzatzeko.

Hau kontutan izanda,

ADIERAZTEN DU:

LEHENGOA.- Aresoko Udalak, udaletxeko beheko solairuan taberna-dendaren proiektuaren idazketa kontratatzeko asmoa du eta iArt Arkitektura enpresak, egindako oinarrizko proiektuaren zenbatekoak kontuan hartuta, exekuzio proiektuaren idazketa egiteko 14.590,81€-ko (BEZ kanpo) eskaintza egin du.

BIGARRENA.- Aresoko Udalak 2026ko aurrekontuan horretarako “4310 62700 Taberna-denda proiektuaren redakzioa 18.000,00€” gastu partida aurreikusi du. Beraz, kreditu nahikoa du zerbitzu kontratutik eratorritako betebehar ekonomikoei aurre egiteko.

ARESO
Egiaztapen-aseguru kodea: 7EAA AAF4 LUNV K9CY XD3Q

Resolución Nº 25 de 15/04/2026 "Zenbateko txikiko kontratua " - SEGRA 121530

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan https://egoitzaelektronikoa.areso.eus/ 2tik 1 orrialdea

SINATZAILEA
La Presidenta de la Comisión Gestora de Areso / Aresoko Kudeaketa Batzordeko Lehendakaria
María Beatriz Muro Martínez
2026/04/15

SINATZAILEA
La Secretaria de Areso / Aresoko Idazkaria
MAIDER CASTILLA ELARRE
2026/04/15

ARESOko UDALA

HIRUGARRENA.- Kontratuaren zenbatekoaren aurreikuspena aintzat hartuta, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak 81. Artikuluan ezarritakoaren arabera, zenbateko txikiko kontratu bat da.

Zenbateko txikiko prozedurak, kontratuaren tramitaziorako, aldez aurreko kreditu erreserba egitea besterik ez du eskatzen, kontratazio organoa kide den adjudikazio botereari aplikatu beharreko aurrekontu eta kontabilitate-araudiarekin bat. Horrekin batera, faktura aurkeztea eskatzen da.

Hori guztia kontuan hartuta,

EBAZTEN DU:

LEHENENGOA**.-** IART Arkitektura enpresari, apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak 81. Artikuluan jasotako zenbateko txikiko kontratazioetarako prozeduraren bitartez, Aresoko taberna dendaren exekuzio proiektuaren idazketarako zerbitzu-kontratua esleitzea, honako baldintza ekonomikoetan:

- Proiektuaren exekuzio materialaren %5,80a, hau da, 14.590,81€ (hamalau mila bostehun eta laurogeita hamar euro eta laurogeita bat zentimo)-koa izango da prezioa, BEZik gabe.

BIGARRENA**.-** Kontratazio honen eskubide eta betekizunei 2/2018 Foru Legea izanen zaie aplikagarri; baita gauzatu beharreko lanak ezarritako baldintzekin bat ez badatoz, 2/2018 Foru Legeak aurreikusitako prozedurak gauzatzeko aukera izanen da.

HIRUGARRENA.- Interesatuari jakinarazi bere ezagutzarako eta behar den tokian ondorio egokiak sor ditzan.

Areson, 2026ko apirilaren 15ean

Horren guztiaren berri izan dezazun eta dagozkion ondorioak sor ditzan jakinarazten dizut; deialdi honen aurka errekurtso hauetakoren bat jarri ahalko da:
1.- Aukeran, eta beti ere hilabeteko epean, Berraztertzeko errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, edo Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua.
2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, aurreikusitako kasuetan salbu.

ARESOko UDALA | Eliz bidea z/g | 31876 ARESO (Nafarroa) | T. 948 510 327 | CIF/IFK P-31 031 000-H

ARESO
Egiaztapen-aseguru kodea: 7EAA AAF4 LUNV K9CY XD3Q
Resolución Nº 25 de 15/04/2026 "Zenbateko txikiko kontratua " - SEGRA 121530
Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan https://egoitzaelektronikoa.areso.eus/ 2tik 2 orrialdea